

## AL PLENO DEL AYUNTAMIENTO DE BILBAO

El grupo municipal UdalBerri-Bilbao en Común presenta al próximo Pleno Ordinario esta proposición para su debate y aprobación relativa a la “puesta en marcha de un Plan Integral de Ocio para Jóvenes”.

### PROPUESTA

El Pleno del Ayuntamiento de Bilbao insta al Equipo de Gobierno a:

- 1.) Realizar un proceso de revisión y evaluación participativa, de todas las iniciativas municipales impulsadas desde el área de juventud y deporte durante el presente mandato, enfocadas en actividades de ocio para jóvenes de entre 18 - 25 años.
- 2.) En base a dicha evaluación, impulsar de forma participativa un Plan Integral de Ocio para Jóvenes, que promueva alternativas innovadoras, centrado en el segmento de población de entre 18 - 25 años, que fomente de forma descentralizada la creación de una red de espacios basados en la cogestión, donde la juventud pueda divertirse fomentando su propia autonomía y libertad.

### JUSTIFICACIÓN

El ocio es un rasgo caracterizador de la identidad de Bilbao. Sólo hay que pasear por las calles del centro y de los barrios de nuestra Villa para observar como disfrutamos del espacio público. Así, dentro de nuestras prácticas comunes de ocio, la relacionada con el consumo de bebidas alcohólicas tiene un rol protagónico. Además, estas prácticas superan los espacios comerciales privados, ya que a menudo utilizamos el espacio público para este tipo de actividades. Adicionalmente, es significativo evidenciar que estas prácticas son transversales a casi todos los niveles de la sociedad, desde la juventud y hasta la vejez.

En este contexto, aunque es cierto que el Gobierno Municipal ha implementado desde el Área de Juventud múltiples proyectos o iniciativas, resulta igualmente obvio afirmar que con lo hecho hasta ahora no ha sido suficiente para solucionar algunos de los conflictos derivados de la práctica del ocio nocturno que afectan gravemente la convivencia en varias zonas de Bilbao.

Por ello, desde UdalBerri – Bilbao en Común nos parece honesto proponer esta moción como forma de aportar en el complejo proceso de compatibilizar la vida diurna y nocturna. Queremos en definitiva aportar al trabajo municipal cuyo objetivo según declaraciones del propio Alcalde: “es lograr un equilibrio entre una ciudad joven y viva y el reconocimiento del derecho al descanso”.

Así, tras un primer análisis y evaluación participativa de lo ya hecho, apostamos por construir un Plan Integral de Ocio para Jóvenes huyendo de enfoques adultocéntricos. Un Plan diseñado de forma participativa, en el que las personas usuarias sean jóvenes de entre 18 y 25 años. Una propuesta realmente descentralizada, que fomente la creación de espacios de cogestión, donde la juventud adquiera mayor autonomía, evitando premeditadamente proyectos o espacios fuertemente monitorizados. Ofreciendo así, una respuesta efectiva a ese 64% de jóvenes, que según datos manejados por el propio Gobierno Municipal manifiestan estar dispuestos a reducir sus salidas nocturnas a cambio de otras alternativas realmente atrayentes.

En conclusión, con esta propuesta queremos aportar en el ámbito de la convivencia urbana, superando posiciones frentistas o demagógicas, entendiendo tanto a la ciudadanía que no se resigna a renunciar a su derecho al descanso como a la juventud que quiere seguir disfrutando de la vida y del ocio. Sin olvidar que si queremos que Bilbao sea realmente una ciudad con futuro, este Gobierno tiene que oír y sobre todo escuchar mucho más a los y las jóvenes.

En Bilbao, a 12 de febrero de 2019.



Fdo. Amaia Arenal Vidorreta  
Concejala UdalBerri-Bilbao en Común

## **BILBOKO UDALAREN OSOKO BILKURARI**

UdalBerri-Bilbao en Común udal-taldeak “Gazteen aisialdirako plan integrala abiarazteari” buruzko proposamen hau aurkeztuko du datorren Ohiko Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onesteko.

### **PROPOSAMENA**

Bilboko Udaleko Osoko Bilkurak honako hau eskatzen dio Gobernu Taldeari:

1.) Agintaldi honetan gazteria eta kirol sailetik bultzatu diren udal-ekimen guztiak berrikusteko eta parte-hartzearen bidez ebaluatzeko prozesu bat egin dezala, betiere 18 - 25 urteko gazteen aisialdirako jardueri dagokienez.

2.) Ebaluazio horretan oinarrituta, Gazteen Aisialdirako Plan Integral bat bultza dezala, parte-hartzearen bidez betiere, eta plan horretan aukera berritzaileak sustatu daitezela, 18-25 urteko populazio-segmentua izan dadila ardatz, baterako kudeaketan oinarritutako espazioen sare bat sortzea bultza dezala, modu deszentralizatuan, espazio horietan gazteek dibertitzeko aukera izatearren euren autonomia eta askatasuna sustatzen duten bitartean.

### **JUSTIFIKAZIOA**

Aisialdia Bilboren nortasunaren bereizgarrietako bat da. Erdiguneko kaleetan eta gure hiriko auzoetan barrena pasean ibili hutsarekin ongi ikusten da espazio publikoaz gozatu egiten dugula. Hori horrela, aisialdiko gure jardunbide komunen barruan, alkoholdun edarien kontsumoarekin lotutako jarduerak garrantzi handia dute. Gainera, jarduera horiek merkataritzako espazio pribatuetatik kanpo ere gertatzen dira, askotan espazio publikoa erabiltzen baitugu jarduera horietarako. Horretaz gain, adierazgarria da jarduera horiek zeharkakoak direla gizartearen maila ia guztietan, gazteekin hasi eta adinekoekin bukatu.

Testuinguru horretan, Udal Gobernuak Gazteria Sailetik hainbat ekimen edo proiektu ezarri dituen arren, esan gabe doa orain arte egindakoa ez dela nahikoa izan gaueko aisialdiaren ondorioz sortutako zenbait gatazka konpontzeko eta Bilboko hainbat gunetako bizikidetzan ere eragin larria izaten dutela gatazka horiek.

Horregatik, UdalBerri – Bilbao en Común alderditik mozio hau aurkeztea zuzentzat jotzen dugu, eguneko eta gaueko bizimoduak uztartzeko prozesu konplexuan geure ekarpena egiteko. Azken batean, udal-lanari ekarpena egin nahi diogu; izan ere, alkatearen beraren hitzetan, udal-lan horren helburua honako hau da: “hiri gazte eta bizia izatearen eta atsedeen hartzeko eskubidea aitortzearen arteko oreka lortzea”.

Horrela, bada, orain arte egindakoa aztertu eta parte-hartzearen bidez ebaluatu ostean, Gazteen Aisialdirako Plan Integral bat egitearen aldeko apustua egiten dugu, betiere ikuspegi helduzentrikoak alde batera utzita. Parte-hartzearen bidez diseinatutako plana izatea nahi dugu, erabiltzaileak 18 urtetik 25 urtera bitarteko gazteak izanik. Proposamenak erabat deszentralizatuak izan beharko luke, baterako kudeaketako espazioak sortzea sustatzen duena, gazteek autonomia handiagoa izan dezaten, eta hertsiki bideratutako proiektu edo espazioak nahita saihestuta. Hori eginez gero, Udal Gobernuak berak dituen datuen arabera, bestelako aukera benetan erakargaririk izango balute gaueko irtenaldiak murrizteko prest leudekeen gazteen % 64 horri erantzun eraginkorra emango genieke.

Ondorio gisa zera esan dezakegu, proposamen honekin, hiriko bizikidetzari ekarpena egin nahi diogula, jarrera aurkariak edo demagogikoak gaituta eta bi aldeak ulertuta, hau da, atsedean hartzeko eskubideari uko egin nahi ez dioten herritarrak, alde batetik, eta bestetik, bizitzaz eta aisialdiaz gozatzen jarraitu nahi duten gazteak. Eta ezin dugu ahaztu Bilbo etorkizuna duen hiria izatea benetan lortu nahi baldin badugu, Gobernu honek gazteei entzun eta, batez ere, kasu egin behar diela.

Bilbo, 2019ko otsailaren 12a.



Stua.: Amaia Arenal Vidorreta  
UdalBerri-Bilbao en Común zinegotzia